

Fontes

Linguae Vasconum

50 urte. Ekarpen berriak

euskararen ikerketari ¶

Nuevas aportaciones al

estudio de la lengua vasca

Hitz-ordenaren eragina zen-
bait ezaugarri gramatikalen
erabilera-maiztasunean

LUIS PASTOR

Argitaratzaileak / Editores

Ekaitz Santazilia

Dorota Krajewska

Eneko Zuloaga

Borja Ariztimuño



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Hitz-ordenaren eragina zenbait ezaugarri gramatikalen erabilera-maiztasunean

The influence of word order on the frequency use of some grammatical features

LUIS PASTOR

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

luis.pastor@ehu.eus

JASOA: 2019/07/31 | BEHIN-BEHINEAN ONARTUA: 2019/10/10 | BEHIN BETIKO ONARTUA: 2019/11/23

Ikerketa hau MICINNEko FPI bekari (BES-2010-030196), Paramprocess (FFI2009-09695), Grammarinprocess (FFI2012-31360), OVO (FFI2015-64183-P) proiektuei, eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Gogo Elebiduna proiektuari (GIU 09/44-IT414-10) esker egin da.

LABURPENA

Hitz-ordenak eragina du zenbait ezaugarri gramatikalen erabilera-maiztasunean (Polinsky, 2012). Ikerketa honetan, lau corpus idatziren bidez, bi SAO (ingeleza eta gaztelania) eta bi SOA (euskara eta koreera) hizkuntzen izen-aditz ratioak konparatu dira. Emaitez erakusten dute SOA hizkuntzek izen-aditz ratio txikiagoa dutela SAO hizkuntzen aldean. Horren azalpenetako bat izan daiteke SOA hizkuntzetan subjektuak maizago eliditzen direla (Ueno & Polinsky, 2009). Beraz, hori frogatzeko euskarazko eta gaztelaniazko bi corpus idatzi konparatu dira, eta emaitzek erakusten dute euskarak maiztasun handiagoz murrizten dituela subjektuak gaztelaniaren aldean. Laburbilduz, SOA hizkuntzek prozesamendua errazteko argumentu gutxiago erabiltzen dute SAO hizkuntzekin konparatuta.

ABSTRACT

Word order influences the frequency of use of certain grammatical features (Polinsky, 2012). I examine, with four written corpora, the noun-verb ratios of two SVO (English and Spanish) and SOV (Basque and Korean) languages. Results reveal a lower noun-verb ratio in SOV than in SVO languages. This could be due to a greater argument omission in SOV languages (Ueno & Polinsky, 2009). I compare two written corpora in Basque and Spanish and the results reveal a higher frequency of argument omissions in Basque than in Spanish. In conclusion, SOV languages, in order to facilitate processing, use fewer arguments than SVO languages.

Gako-hitzak: hitz-ordena; euskara; izen-aditz ratioa; argumentuen elisioa; prozesamendua.

Keywords: word order; Basque; noun-verb ratio; argument omission; processing.

1. Sarrera

Hitz-ordena hizkuntzen diseinuaren ezaugarri berezi bat da. Greenbergek (1963) eragin handiko *Universals of Language* liburuan erakutsi zuen hitz-ordenaren eta hizkuntzen beste ezaugarri batzuen arteko korrelazio sendoa dagoela. Adibidez, hizkuntza batek subjektua- objektua-aditza (SOA) ordena badu, hizkuntza horrek postposizioak izango ditu; baina, subjektua-aditza-objektua (SAO) ordena badu, preposizioak izango ditu. Gerora beste hainbat hizkuntzalarik beste hizkuntza-ezaugarri batzuekin erlazionatu dute hitz-ordena: aditz-komunztadurarekin edota sintagma luze eta laburren hurrenkerekin. Adibidez, hitz-ordenari eta aditz-komunztaduraren erlazioari dagokienez, SOA hizkuntzek subjektu-objektu aditz-komunztadura edukitzeko joera dute (1a), baina SAO hizkuntzek ez (1b) (Siewierska & Bakker, 1996; Dryer, 2002).

- (1) a. euskara (SOA hizkuntza eta subjektu-objektu aditz-komunztadura):
Andreek gazteari liburu batzuk oparitu dizkiote
- b. gaztelania (SAO hizkuntza eta bakarrik subjektu aditz-komunztadura):
Las mujeres le han regalado unos libros a la joven

Bestalde, SOA eta SAO hizkuntzetako sintagmen hurrenkera desberdina da, eta desberdintasun hori sintagmen luzeraren eraginez da (Hawkins, 1994; Yamashita & Chang, 2001; Ros, Santesteban, Fukumura & Laka, 2015; Ros, 2018). Adibidez, Rosek (2018) gaztelaniazko eta euskarazko perpaus trantsitiboetako sintagmen hurrenkera aztertu du, ikusiz gaztelaniazko hiztunek sintagma laburrak luzeen aurretik jartzeko joera dutela (2b) eta euskarazko hiztunek, berriz, kontrako joera erakusten dutela (3b), sintagmen hurrenkera hauek hizkuntza horien oinarritzko hitz-ordena izan ez arren.

- (2) gaztelania (SAO hizkuntza)
- a. [el trabajador]_{IS laburra} ha mencionado [al político]_{IS laburra}
- b. [al político]_{IS laburra} ha mencionado [el trabajador que dio un discurso en la asamblea]_{IS luzea}
- (3) euskara (SOA hizkuntza)
- a. [langileek]_{IS laburra} [politikaria]_{IS laburra} aipatu dute
- b. [denon aurrean hitz egin duten politikaria]_{IS luzea} [langileek]_{IS laburra} agurtu dute

Polinskyk (2012) aztertu du ea hitz-ordenak eragina duen zenbait ezaugarri gramatikalen erabilera-maiztasunean. Konkretuki, hitz-ordenaren eragina izenen eta aditzen erabilera-maiztasunean aztertu du, jakinda munduko hizkuntza guztiek *izen* eta *aditz* kategoria lexikoak bereizten dituztela (Croft, 1991). Hori frogatzeko corpus-ikerketak bat egin du eta erabilitako corpusa hogeita zortzi hizkuntzaren datu-base lexikoez osatuta dago. Aztertzen dituen hizkuntzak hiru multzotan sailkatzen ditu, hitz-ordenaren arabera: A(SO/OS), SAO eta SOA hizkuntzak. Izenen eta aditzen maiztasun erlatiboa jakiteko, horien ratioa kalkulatu du izenen agerraldi guztiak zati aditzen agerraldi guztiak eginez (izen-aditz ratioa = izenak / aditzak). Polinskyren emaitzek erakusten dute korrelazio esanguratsua dagoela hizkuntzen hitz-ordenaren eta izen-aditz ratioaren artean: SAO hizkuntzetan izen-aditz ratio txikia dago eta SOA hizkuntzetan, ordea, izen-aditz ratio handiagoa.

I. taula. Polinskyk erabiltzen dituen hizkuntzen inguruko informazioa:
hitz-ordena eta izen-aditz ratioa

Hitz-ordena	Hizkuntza	Izen-aditz ratioa
A(SO/OS)	halkomelem	1,05
	zapotekera	1,23
	malgaxea	1,49
	maoriera	1,76
	tzotzilera	1,91
	Irlandako gaelera	2,07
SAO	bahasera	2,14
	vietnamera	2,40
	hebreera	2,49
	swahili	3,03
	errumaniera	3,50
	greziera	3,70
	gaztelania	3,74
	poloniera	4,04
	txinera	5,86
	ingeleza	5,90
	txekiera	6,02
	alemaniera	6,49
	nederlandera	6,90
hungariera	9,57	

Hitz-ordena	Hizkuntza	Izen-aditz ratioa
SOA	koreera	4,96
	japoniera	5,60
	tamilera	5,60
	euskara	6,59
	archiera	6,68
	teluguera	6,69
	latina	6,82
	didoera	6,93

Hala ere, emaitzak esanguratsuak izan arren, hizkuntza askok (batez ere, germaniar eta eslaviar hizkuntzek) ez dute erakusten haien hitz-ordenarekin bat etorri behar lukeen izen-aditz ratioa. Polinsky honetaz ohartzen da eta, haren ustez, hizkuntza horietako datu-baseak etiketatzeko erabaki eta moduengatik izan daiteke hori. Datu-baseak eraikitzerakoan ez dira modu berean etiketatu izenak eta aditzak, eta horrek eragina du kategoria lexiko horiek zenbatzean: adibidez, txekierazko datu-basean *aditz* bezala etiketatu dituzte aditz-aspektua edota aditz-aurrizkiak ere. Hori dela eta, jarraian corpus-ikerketari berri bat aurkeztuko dut, arazo metodologiko horiek sailhestuz.

2. Corpus-ikerketari 1: hitz-ordena eta izen-aditz ratioa

Corpus-ikerketari honetan Polinskyren (2012) ikerketari-lana erreplikatu nahi dut, haren lanean topatutako arazo metodologikoa zuzenduz: erabilitako datu-base lexikoetan izenak eta aditzak ez dira irizpide bereberekin etiketatu. Gainera, Polinskyk erabilitako datu-baseek tamaina desberdina dute, eta alde handia dago haien artean. Hemen erabiliko ditudan corpusak, berriz, antzeko tamainakoak dira. Bestalde, gogora dezagun Polinskyk (2012) topatzen duela SAO hizkuntzek izen-aditz ratio txikiagoa dutela SOA hizkuntzen aldean. Halere, nik kontrako erlazioa aurkitzea espero dut, hau da, SOA hizkuntzek izen-aditz ratio txikiagoa izango dutela eta SAO hizkuntzek, berriz, ratio handiagoa. Izan ere, corpus-ikerketari honetan erabiliko ditudan SOA hizkuntzetan (euskara eta koreera) subjektua eta objektua elidi daitezke eta SAO hizkuntzetan, ordea, bakarrik subjektua (gatzelania), edo ezin da elisiorik egin (ingeleza).

Erabilitako corpusak Steven Pinkerren *Hizkuntza-sena* (*The Language Instinct*) liburuko lehenengo kapituluak osatzen du, lau hizkuntzetan: ingelesez, gatzelaniaz (biak SAO hizkuntzak), euskaraz eta koreeraz (biak SOA hizkuntzak) (ik. 2. taula).

2. taula. Erabilitako corpusaren inguruko datuak

Hitz-ordena	Hizkuntza	Hitz-kopurua	Iturria
SAO	ingeleza	3861	Pinker (2007 [1994])
	gaztelania	4477	Pinker (2012 [1994])
SOA	euskara	3158	Pinker (2010 [1994])
	koreera	3046	Pinker (1995)

2.1. Prozedura

Corpusean agertzen diren hitzak eskuz etiketatu dira kategoria-lexiko moten arabera (izenak, adjektiboak, adberbioak eta aditzak). Euskarazko eta gaztelaniazko testuak nik etiketatu ditut eta ingelesezko eta koreerazko testuak, berriz, hizkuntza horietako bi hiztun natibok etiketatu dituzte. Ikerketa honetan *izen* eta *aditz* kategoria lexikoak aztertuko direnez, jarraian hauek etiketatzerakoan jarraitu diren amankomuneko irizpideak deskribatuko ditut.

Izen bezala etiketatu dira bakarrik testuan agertzen diren izen arruntak, eta alde batera utzi dira izen bereziak¹, leku-izenak eta siglak. Aditzei dagokienez, forma jokatuetako aditz nagusiak bakarrik etiketatu dira eta, beraz, aditz laguntzaileak ez dira kontuan hartu. Forma ez-jokatuak ere aditzat hartu dira, partizipioak aditz laguntzailerik gabe agertzen direnean izan ezik. Kasu hauetan partizipioa adjektibotzat hartu da, (4b) adibidean ikusten denez:

- (4) a. Chomskyk irakurle_[izena] asko *harritu*_[aditza] ditu
 b. Pertsona_[izena] *eskolatu*_[adjektiboa] gehienek badituzte_[aditza]

Izenen eta aditzen erabilera-maiztasuna konparatzeko, hauen ratioa kalkulatu da corpusetako izenak zati aditzak eginez (izen-aditz ratioa = izenak / aditzak). Izen-aditz ratio hauek aztertzerakoan, Wilcoxon proba eta erregresio linealaren erudia erabili ditut ikusteko ea desberdintasun esanguratsurik ote dagoen SOA eta SAO hizkuntzen artean izen-aditz ratioen erabileran. Analisi estatistikoak R programazio-lengoiaren bidez (R Core Team, 2017) eta *lme4* paketea erabiliz (Bates, Maechler, Bolker & Walker, 2015) egin ditut. Emaitzak esanguratsutzat hartu ditut $p < ,05$ denean. Grafikoak *ggplot2* paketearekin (Wickham, 2009) egin ditut.

2.2. Emaitzak


3. taulak corpora osatzen duten lau testuen izen- eta aditz-kopuru osoak eta hauen izen-aditz ratioa erakusten ditu. Ikus daitekeenez (3. taula eta 1. irudia), SOA hizkuntzek SAO hizkuntzek baino izen-aditz ratio txikiagoa erakusten dute. Hala ere, SOA eta SAO

¹ Erabilitako lau testuek izen berezien kopuru bera dute, horregatik horiek kentzeak ez du eraginik aztertutako hizkuntzen izen-aditz ratioan.

hizkuntzen arteko desberdintasuna izen-aditz ratioari dagokionez ez da esanguratsua ($Z = 1,5492$, $p = ,1213$). Baliteke desberdintasun esanguratsurik eza hizkuntza gutxi erabili izanagatik izatea.


3. taula. Corpuseko izenen eta aditzen maiztasunak eta izen-aditz ratioak

Hitz-ordena	Hizkuntza	Kopuruak		
		Izenak	Aditzak	Izen-aditz ratioa
SAO	ingeleza	878	520	1,69
	gaztelania	968	599	1,62
SOA	euskara	872	594	1,47
	koreera	1057	742	1,43



1. irudia. Izen-aditz ratioa koreeraz, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez.

Hori dela eta, erregresio linealaren eredua erabili dut topatutako hitz-ordenaren eta izen-aditz ratioen erlazioa modelatzeko eta azaltzeko. Ereduek erakusten du lotura dagoela hitz-ordenaren eta izen-aditz ratioaren artean (ik. 2. irudia): SAO hizkuntzek izen-aditz ratio handiagoa izateko joera dute ($b = 0,20050$, $p < ,049$, $R^2 = 0,85$); edo, bestela esanda, ereduak aurreikusten du izen-aditz ratioa 1,22 bider handiagoa izango dela hizkuntza SAO bada.



2. irudia. Izen-aditz ratioa SOA (euskara eta koreera) eta SAO (ingelesa eta gaztelania) hizkuntzetan.

Laburbilduz, corpus honetako datuek erakusten dute korrelazioa dagoela hizkuntza baten hitz-ordenaren eta honek duen izen-aditz ratioaren artean: SOA hizkuntzek izen-aditz ratio txikiagoa izango dute SAO hizkuntzekin konparatuta.

2.3. Eztabaida

Corpus ikerketa honetan aztertu dut ea hizkuntzen oinarrizko hitz-ordenak, hizkuntza SAO edo SOA izateak alegia, izenen eta aditzen erabilera-maiztasunean (izen-aditz ratioa) eragina duen. Emaitzek erakusten dute badagoela eragin hori, hau da, korrelazio bat dagoela hizkuntzen hitz-ordenaren eta izen-aditz ratioaren artean. Hala ere, corpus-ikerketa honetako emaitzak ez datoz guztiz bat Polinskyren (2012) emaitzekin, berak aurkitzen duen korrelazioa eta nik aurkitzen dudana kontrako bidean doazelako. Polinskyk topatzen du SOA hizkuntzetan izen-aditz ratioa handiagoa dela eta SAO hizkuntzetan txikiagoa dela; nik, aldiz, kontrako topatu dut: SOA hizkuntzetan izen-aditz ratioa txikiagoa dela eta SAO hizkuntzetan handiagoa dela.

Polinskyk (2012) iradokitzen du hitz-ordenaren eta izen-aditz ratioaren arteko korrelazioa hizkuntzek aditzak sortzeko erabiltzen dituzten eratorpen-metodoekin lotuta dagoela. Kasu horretan, eta betiere bere laneko emaitzetan oinarrituz, SOA hizkuntzek izen-aditz ratio handiagoa dute aditz berriak sortzerakoan [izen + aditz arina] (*light verb*) egiturak maizago erabiltzen dituztelako (adibidez, japonierazko *guuguru suru* ‘googleatu’ < *guuguru* ‘Google’ + *suru* ‘egin’). SAO hizkuntzen kasuan, ordea, izen-aditz ratio txikiagoa dute aditzak izenetatik eratortzen dituztelako (adibidez, gaztelaniazko *señalizar* < *señal* + *-(iz)ar*). Hala ere, argudio hori ez da oso sendoa, euskarari erreparatzen badiogu. Egia da euskaraz aditzak sor daitezkeela [izen + aditz arina] egiturak erabiliz (adibidez, *hitz egin*, *eskua eman*...), baina eratorpen-metodo hori ez da oso emankorra, euskaraz aditzak sortzeko metodorik emankorre-

na *-tu* eratorpen-morfemaren erabilera baita (Azkue, 1984 [1905], xviii. or.). EPEC² corpusean (Aldezabal, Aranzabe, Arriola & Díaz de Ilarraza, 2009) erauzketa simple batek baieztatzen du argudio hau: agertzen diren aditz guztietatik 646 [izen + aditz arina] egituraz eratuta daude eta 8963, berriz, *-tu* eratorpen-morfemaz eratuta daude. Hala ere, nik uste dut SOA-SAO hizkuntzen arteko izen-aditz ratioaren desberdintasuna perpauseko argumentuen elisioan datzala. Horrela, SOA hizkuntzetan topatzen dudan izen-aditz ratio txikia bat dator argumentu-kopuruaren murrizketaren eta prozesamendu-kostua arintzeko ideiarekin. Uenok eta Polinskyk (2009) proposatzen dute SOA hizkuntzak prozesatzeko zailagoak direla, argumentu gehiago (subjektua eta objektua) mantendu behar dituztelako memorian aditza prozesatu arte, aditzean bertan interpretatzen eta integratzen baitira argumentuak (Pickering & Barry, 1991; Gibson & Hickok, 1993; Pickering, 1993; Trueswell, Tanenhaus & Kello, 1993; Garnsey, Pearlmuterb, Myers & Lotockyc, 1997). Gainera, ikusi da hitzunik izenak ekoiztu baino lehen eten luzeagoa egiten dutela, baina ez aditzekin (Seifart *et al.*, 2018). Horrela, SOA hizkuntzetan denbora gehiago beharko da perpausa planifikatzerakoan, bi izen (argumentu) planifikatu behar baitituzte aditza baino lehen; SAO hizkuntzetan, berriz, denbora gutxiago behar dute izen (argumentu) bat bakarrik planifikatu behar baitute. Beraz, honek denak azal dezake zergatik aurkitzen dudan izen-aditz ratio txikiagoa SOA hizkuntzetan, planifikazio- eta prozesamendu-kostuak errazteko asmoz izen (argumentu) kopurua murrizten delako.

Azkenik, bi lanen emaitzen arteko desberdintasuna izenen eta aditzen etiketatzearen ondorio izan daiteke. Lehenago aipatu dudan bezala, Polinskyk iradokitzen du hizkuntzetako datu-baseak sortzerakoan etiketatze-metodologia desberdinak erabili direla eta horregatik bere laneko hizkuntza batzuek (batez ere, germaniar eta eslaviar hizkuntzek) ez dutela haien hitz-ordenari (SAO) dagokion izen-aditz ratioa erakusten. Hemen aurkeztu dudan corpus-ikerketan, berriz, erabilitako lau corpusak etiketatze-erabaki berekin etiketatu dira, Polinskyk izan dituen etiketatze-arazoak saihestuz. Bestalde, corpus-ikerketa honetako emaitzak esanguratsuak izan arren, hizkuntza gehiago konparatu beharko dira emaitza hauek baieztatzeko.

3. Corpus-ikerketa II: hitz-ordena eta subjektuaren elisioa

Bigarren corpus-ikerketa honetan, Uenoren eta Polinskyren (2009) hipotesia frogatu nahi izan dut: SOA hizkuntzetan prozesamendua errazteko aditz-aurreko gunean agertzen den argumentu-kopurua murrizteko joera dagoela, perpaus intrantsitibo gehiago erabiliz edota subjektuak elidituz.

Erabilitako corpusak 4000 perpaus ditu orotara, eta perpaus horiek euskarazko (SOA hizkuntza) eta gaztelaniazko (SAO hizkuntza) egunkari, liburu eta aldizkarietako testuetatik hartu ditut (ik. 4. taula), corpora heterogenoa izan dadin. Egunkari-atalera-

² Bilaketa 155.654 hitzetara mugatu da.

ko, *El Correo* egunkaria hartu dut gaztelaniarako eta *Berria* egunkaria euskararako. Era berean, perpausak egunkarietako 7 azpiataletatik (*ekonomia, gizartea, mundua, nazionala, kirolak, kultura* eta *politika*) hartu ditut, eta atal bakoitzak perpaus-kopuru bera du bi hizkuntzetan (100 perpaus x 7 azpiatal). Liburu-atalari dagokionez, 4 generotako liburuak (*komedia, misterioa, historikoa* eta *saiakera / ez-fikzioa*) erabili ditut hizkuntza bietan eta genero bakoitzak perpaus kopuru bera du (175 perpaus x 4 genero). Azkenik, aldizkari-atalean, euskarazko *Elhuyar* eta gaztelaniazko *Muy Interesante* dibulgaziozko aldizkariak erabili ditut. Egunkari-atalean bezala, 6 azpiataletatik (*zientzia, natura, teknologia, historia, osasuna* eta *kultura*) hartu ditut perpausak eta guztiek kopuru bera dute (100 perpaus x 6 azpiatal).

4. taula. Corpora osatzen duten perpaus-kopuruaren banaketa hizkuntzen eta iturrien arabera

	Egunkariak	Liburuak	Aldizkariak	Guztira
Euskara	700	700	600	2000
Gaztelania	700	700	600	2000
Guztira	1400	1400	1200	4000

3.1. Prozedura

Corpora osatzerakoan bakarrik perpaus nagusiak hartu ditut kontuan, mendeko perpausak eta perpaus adjunktua deuseztatuz. Perpausak eskuz etiketatu ditut perpaus-moten eta argumentu-elisioaren arabera. Bi perpaus mota bereizi ditut: *perpaus intrantsitiboak*, argumentu bat dutenak; eta *perpaus trantsitiboak*, argumentu bi edo hiru dituztenak (ik. 5. taula). Euskaraz, [izena + *egin* aditza] egitura duten perpausak intrantsitibotzat hartu ditut, beste hizkuntzetako perpaus ez-ergatiboen baliokideak baitira (Laka, 1993).

5. taula. Corpusean agertzen diren perpaus-moten adibideak euskaraz eta gaztelaniaz

Mota	Adibidea	Iturria
Intrantsitiboak	eus.: Errepide mapa bat lantzeko unea[S] etorriko da[A]	[egunkaria]
	gazt.: Él[S] titubeó[A] un instante	[liburuak]
Trantsitiboak	eus.: Herri honek[S] premia izugarria[O] du[A]	[egunkaria]
	gazt.: nosotros[S] hemos creado[A] un sistema curvilíneo[O]	[aldizkaria]

Argumentu-elisioari dagokionez, bi mota bereizi ditut: *subjektu isilak ez dituzten perpausak* eta *subjektu isilak dituzten perpausak* (ik. 6. taula). Beraz, euskaraz alde batera utzi ditut objektua elidituta dituzten perpausak gaztelaniarekin parekagarria izan dadin, honek bakarrik subjektuzko elisioa baitu.

6. taula. Corpusean agertzen diren subjektu ez isilen eta isilen adibideak euskaraz eta gaztelaniaz

Mota	Adibidea	Iturria
Subjektu ez isilak	eus.: Liburu honek[S] hari asko[O] dauzka[A]	[egunkaria]
	gazt.: Bernat[S] aceptó[A] la oferta[O]	[liburuak]
Subjektu isilak	eus.: Ø[S] Gramatika bat[O] ere egin omen zuen[A]	[liburuak]
	gazt.: Ø[S] Hemos utilizado[A] diferentes tipos de textos[O]	[aldizkaria]

Corpuseko datuak aztertzerakoan, khi-karratu estatistika-analisia (*Pearson chi-square*) erabili dut euskarazko eta gaztelaniazko perpaus-moten eta subjektu isilen erabileran desberdintasun esanguratsuak dauden edo ez ikusteko. Analisi estatistikoak R programazio-lengoiaren bidez (R Core Team, 2017) egin ditut. Emaitzak esanguratsuz hartu ditut $p < ,05$ denean. Grafikoak *ggplot2* paketearekin (Wickham, 2009) egin ditut.


3.2. Emaitzak

7. taulak erakusten du corpora osatzen duten 4000 perpausen sailkapena hizkuntzen, perpaus-moten eta subjektu-elisioaren arabera.


7. taula. Corpuseko datuak

Hitz-ordena	Hizkuntza	Kopuruak			
		Subjektu ez-isilak	Subjektu isilak	Guztira	
SOA	euskara	intransitiboak	795	194	989
		transitiboak	507	504	1011
SAO	gaztelania	intransitiboak	801	226	1027
		transitiboak	624	349	973

Argumentu-kopuruak murrizterakoan, datuek erakusten dute ez euskarak, ez gaztelania ez dutela perpaus intransitiboetara jotzen (ik. 3. irudia), bi hizkuntzetan perpaus intransitiboan eta transitiboan erabilera-maiztasuna bera delako, hau da, ez dago desberdintasun esanguratsurik bi hizkuntzen artean perpaus intransitiboan erabileran (gaztelania vs euskara: % 51,4 vs % 49,5, χ^2 (1, N = 4000) = 1,3691, $p = ,242$, $f = 0,019$). Konparaketa iturri-moten arabera egiterakoan, desberdintasun esanguratsua aldizkarietan bakarrik topatu da: gaztelania (% 50,3) euskarak (% 42) baino perpaus intransitibo gehiago erabiltzen ditu (χ^2 (1, N = 1200) = 8,050, $p = ,004$, $f = 0,084$). Gainerako iturri-motetan ez da desberdintasun esanguratsurik aurkitu (egunkarietan [gaztelania vs euskara: % 51 vs % 54,3, χ^2 (1, N = 1400) = 1,3867, $p = ,239$, $f = 0,033$] eta liburuetan [gaztelania vs euskara: % 52,6 vs % 51, χ^2 (1, N = 1400) = 0,28608, $p = ,592$, $f = 0,016$]).



3. irudia. Perpaus intrantsitiboen eta trantsitiboen kopurua gaztelaniaz eta euskaraz.



4. irudia. Subjektu isilen kopurua gaztelaniazko eta euskarazko perpaus intrantsitibo eta trantsitiboetan.

Argumentuen elisioari dagokionez, hizkuntza biek subjektu gehiago eliditzeko joera dute perpaus trantsitiboetan intrantsitiboekin konparatuta (ik. 4. irudia), eta gauza bera ikus daiteke iturri-mota guztietan. Hizkuntza biak elkarren artean konparatzen direnean, euskarak (% 52,2) gaztelaniak (% 35,9) baino subjektu isil-kopuru handiagoa du perpaus trantsitiboetan, eta desberdintasun hori esanguratsua da ($\chi^2 (1, N = 1938) = 51,959, p < ,001, f = 0,165$). Iturri-mota guztietan ere euskarak gaztelaniak baino subjektu gehiago eliditzen ditu perpaus trantsitiboetan: egunkarrietan (gaztelania vs euskara: % 36,4 vs % 46,2, $\chi^2 (1, N = 652) = 6,0954, p < ,001, f = 0,1$), liburuetan (gaztelania vs euskara: % 51,5 vs % 65,3, $\chi^2 (1, N = 646) = 12,037, p < ,001, f = 0,14$) eta aldizkarietan (gaztelania vs euskara: % 17,8 vs % 45,6, $\chi^2 (1, N = 640) = 54,819, p < ,001, f = 0,296$).

Laburbilduz, corpus honetako datuek erakusten dute euskarak aditzaren aurretik agertzen diren argumentuak murrizteko joera duela gaztelaniarekin alderatuta. Hala ere, euskaraz murrizketa hori bakarrik lortzen da perpaus trantsitiboetan subjektuak elidituz. Perpaus-moten erabilerari dagokionez, ez dago desberdintasunik ez hizkuntzen artean, ezta hizkuntza bakoitzaren baitan ere. Aipatu beharra dago hemen erabilitako euskarazko perpausetan ez ditudala alde batera utzi fokalizazioagatik edota sintagmen luzeragatik perpausetako argumentuen hurrenkera aldatuta duten perpausak. Horregatik, EPEC corpusean (Aldezabal *et al.*, 2009) bilaketa bat egin dut perpaus neutroetara bakarrik murriztuz. Bilaketa berri honen emaitzek nire corpus-ikerketan aurkitutako distribuzioak erakusten dituzte. Perpaus-motei dagokienez, 6978 perpaus nagusietatik % 50,4 intrantsitiboak dira (3518 perpaus) eta % 49,6 trantsitiboak dira (3460 perpaus), eta banaketa ez da esanguratsua ($\chi^2(1, N = 6978) = 0,48209, p = ,4875$). Subjektu-elisioari dagokionez, perpaus intrantsitiboetan % 19,1ek subjektua eliditurik du eta perpaus trantsitiboetan, berriz, % 69,9k, eta desberdintasun hori esanguratsua da ($\chi^2(1, N = 6978) = 1819.2, p < ,001, f = 0,511$). Beraz, emaitza berri hauek erakusten dute perpaus fokalizatuak kontuan hartu badira ere, ez dutela eraginik corpus-ikerketan honetan aurkitutako aditz aurreko argumentuen murrizteko joerekin.

3.3. Eztabaida

Bigarren corpus-ikerketan honetan aztertu dut ea euskaraz (SOA hizkuntza) gaztelaniaz (SAO hizkuntza) baino maizago erabiltzen diren argumentu-kopurua murrizten duten egitura gramatikalak. Emaitzek erakusten dute euskaraz murrizketa hori elisioaren bidez egiten dela, baina ez perpaus intrantsitiboen erabileraren bidez. Beraz, ondoriozta dezaket euskara bezalako SOA hizkuntzetan bai erabiltzen direla aditz aurreko argumentuak murrizten dituzten egitura gramatikalak, eta hori bereziki argumentuen elisioaren bidez egiten dela. Corpus honetako emaitza batzuk, beraz, ez datoz bat Uenoren eta Polinskyren (2009) emaitzekin. Hauek aurkitzen dute SOA hizkuntzetan (haien lanean, japoniera eta turkiera) SAO hizkuntzetan baino perpaus intrantsitibo gehiago erabiltzen direla eta ondorioztatzen dute perpaus intrantsitiboen erabilera prozesamendua errazten duen SOA hizkuntzen berariazko estrategia bat dela.

Uenoren eta Polinskyren (2009) aburuz, perpaus intrantsitiboetako aditzak argumentu bakarra eskatzen duenez, SOA hizkuntzetan aditz aurreko argumentu-kopurua murrizten da SA egitura lortuz (subjektua-aditza), SAO hizkuntzen aditz aurreko gune bera edukiz. Horrela, argumentu gutxiago izanda, epe laburreko memoria-kostua eta aditza prozesatzeko denbora murrizten da (Lindsay, 1975; Pritchett, 1988). Corpus-ikerketan honetan, berriz, emaitzek erakusten dute (a) euskaraz ez dagoela desberdintasunik perpaus intrantsitiboen eta trantsitiboen erabileraren artean, eta (b) ez dagoela desberdintasunik euskararen eta gaztelaniaren artean perpaus intrantsitiboen erabileran. Bi azalpen egon daitezke japonieraren, turkieraren eta euskararen artean perpaus intrantsitiboen erabilerari dagokionez. Alde batetik, Nicholsek, Petersonek eta Barnesek (2004) ikusi dute hizkuntza destrantsitibatzaileak akusatiboak izaten direla eta gutxitan ergatiboak, horregatik euskaraz perpaus intrantsitibo gutxiago erabiltzen dira, japonieraz

eta turkieraz ez bezala. Bestalde, baliteke euskarak beste egitura gramatikal bat erabil-tzea: adibidez, argumentuak aditz osteko gunera mugituz eta SAO ordena lortuz. Hori posible da euskara hitz-ordena askeko SOA hizkuntza delako eta argumentuak aditzaren ondoren ager daitezkeelako (fokalizazioagatik, sintagmen luzeragatik...); japonierak eta turkierak, berriz, hitz-ordena zurruna dute eta ezin dute aditzaren ostean argumenturik izan. Beraz, azkenengo bi hizkuntza hauek maizago erabiliko dituzte perpaus intrantsi-tiboak euskararekin konparatuta.

Bukatzeko, argumentuen elisioari dagokionez, Uenoren eta Polinskyren (2009) emaitzak eta corpus-ikerketaren honetako emaitzak bat datoz: SAO eta SOA hizkuntzetan subjektua maizago eliditzen da perpaus trantsitiboetan intrantsitiboetan baino. Hala ere, lan honetako emaitzek erakusten dute euskaraz (SOA hizkuntza) gaztelaniaz baino sub-jektu gehiago eliditzen direla perpaus trantsitiboetan. Euskarak aditza prozesatu baino lehen bi argumentu (subjektua eta objektua) dituen, subjektua elidituz prozesamendua errazten da. Gaztelaniak, berriz, argumentu bakarra du aditza prozesatu baino lehen eta horregatik ez du, euskarak bezala, subjektua hainbeste eliditzen.

4. Ondorioak

Lan honetan erakutsi dut, bi corpus-ikerketaren bitartez, hitz-ordenak, SOA/SAO hizkun-tza izateak, alegia, zenbait ezaugarri gramatikalen erabilera-maiztasunean eragina duela eta horiek hizkuntzaren prozesamenduaren ikuspegitik azal daitezkeela. Bereziki, hemen aurkeztu ditudan corpus-ikerketek erakusten dute euskara bezalako SOA hizkuntzek izen/argumentu gutxiago erabiltzeko joera dutela SAO hizkuntzekin konparatuta. Horrela, SOA hizkuntzetan argumentu-kopuru txikiagoa erabiliz prozesamendua (ekoizpena eta ulermena) errazten da, aditza prozesatu arte memoria gordeta mantendu beharreko argumentu-kopurua txikiagoa delako. Hala ere, prozesamendua errazten duten egitura gramatikalen erabilera-maiztasuna ez da ezaugarri tipologiko baten arabera bakarrik, kasu honetan hitz-ordena, beste ezaugarri tipologikoen aldiberekotasunak ere eragina izan baitezake.

Hori dena horrela izanda, esan dezakegu hizkuntzen arteko desberdintasun tipolo-gikoak hizkuntzaren prozesamenduaren ikuspegitik azal daitezkeela, hauek prozesamendu-hobespenen islapena baitira. Beraz, badago korrelazio bat hizkuntza-tipologiaren eta prozesamenduaren artean.

Erreferentziak

Aldezabal, I., Aranzabe, M. J., Arriola, J. M. & Díaz de Ilarraza, A. (2009). Syntactic an-notation in the Reference Corpus for the Processing of Basque (EPEC): Theoretic-al and practical issues. *Corpus Linguistics and Linguistic Theory*, 5(2), 241-269. doi: 10.1515/CLLT.2009.010

Azkue, R. M. (1984 [1905]). *Diccionario Vasco-Español-Francés*. Bilbo: Euskaltzaindia.

- Bates, D., Maechler, M., Bolker, B. & Walker, S. (2015). Fitting linear mixed-effects models using lme4. *Journal of Statistical Software*, 67(1), 1-48. doi: 10.18637/jss.v067.i01
- Croft, W. (1991). *Syntactic categories and grammatical relations*. Chicago: The University of Chicago Press.
- Dryer, M. S. (2002). Case distinctions, rich verb agreement, and word order type (Comments on Hawkins' paper). *Theoretical Linguistics*, 28, 151-158.
- Garnsey, S. M., Pearlmutter, N. J., Myersa, E. & Lotockyc, M. A. (1997). The contributions of verb bias and plausibility to the comprehension of temporarily ambiguous sentences. *Journal of Memory and Language*, 37, 58-93.
- Gibson, E. & Hickok, G. (1993). Sentence processing with empty categories. *Language and Cognitive Processes*, 8, 147-161.
- Greenberg, J. H. (1963). Some universals of grammar with particular reference to the order of meaningful elements. In J. H. Greenberg (arg.), *Universals of language* (40-70. or.). Cambridge, MA: MIT Press.
- Hawkins, J. A. (1994). *A performance theory of order and constituency*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Laka, I. (1993). Unergatives that assign ergative, unaccusatives that assign accusative. *MIT Working Papers in Linguistics*, 18, 149-172.
- Lindsay, J. R. (1975). Producing simple utterances: How far ahead do we plan? *Cognitive Psychology*, 7, 1-19.
- Nichols, J., Peterson, D. A. & Barnes, J. (2004). Transitivity and detransitivizing languages. *Linguistic Typology*, 8, 149-211.
- Pickering, M. J. (1993). Direct association and sentence processing: A reply to Gorrell and to Gibson and Hickok. *Language and Cognitive Processes*, 8, 163-196.
- Pickering, M. J. & Barry, G. (1991). Sentence processing without empty categories. *Language and Cognitive Processes*, 6, 229-259.
- Pinker, S. (1995). 기술 습득을 위한 본능. In *언어본능 정신은 어떻게 언어를 창조하는가* (pp. 15-30). Korea: Greenbee Publishing Co.
- Pinker, S. (2007 [1994]). An Instinct to acquire an art. In *The language instinct: how the mind creates language* (15-24. or.). New York: Harper Collins Publishers.
- Pinker, S. (2010 [1994]). Arte bat gureganatzeko sena. In *Hizkuntza-sena* (Itzulpena: G. Knörr) (7-18. or.). Zarautz: UPV/EHU. (2010ean euskaraz argitaratua).
- Pinker, S. (2012 [1994]). El instinto para adquirir un arte. In *El instinto del lenguaje* (Itzulpena: J. M. I. González) (15-24. or.). Madrid: Alianza. (2012an gaztelaniaz argitaratua).
- Polinsky, M. (2012). Headedness, again. In T. Graf, D. Paperno, A. Szabolsci & J. Tellings (arg.), *Theories of everything: in honor of Ed Keenan* (XVII, 348-359. or.). Los Angeles: UCLA.

- Pritchett, B. L. (1988). Garden path phenomena and the grammatical basis of language processing. *Language*, 64, 539-576.
- R Core Team. (2017). R: A language and environment for statistical computing (3.2.1) [software]. Viena: R Foundation for Statistical Computing.
- Ros, I. (2018). *Minimizing dependencies across languages and speakers. Evidence from Basque, Polish and Spanish and native and non-native bilinguals* (doktore-tesia). UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz. <https://addi.ehu.es/handle/10810/31644> helbidetik eskuratua.
- Ros, I., Santesteban, M., Fukumura, K. & Laka, I. (2015). Aiming at shorter dependencies: the role of agreement morphology. *Language, Cognition and Neuroscience*, 30(9), 1156-1174. doi: 10.1080/23273798.2014.994009
- Seifart, F., Strunk, J., Danielsen, S., Hartmann, I., Pakendorf, B., Wichmann, S., ... Bickel, B. (2018). Nouns slow down speech across structurally and culturally diverse languages. *Proceedings of the National Academy of Sciences*, 115(22), 5720-5725. doi: 10.1073/pnas.1800708115
- Siewierska, A. & Bakker, D. (1996). The distribution of subject and object agreement and word order type. *Studies in Language*, 20, 115-161.
- Trueswell, J. C., Tanenhaus, M. K. & Kello, C. (1993). Verb-specific constraints in sentence processing: Separating effects of lexical preference from garden-paths. *Journal of Experimental Psychology: Learning, Memory, and Cognition*, 19(3), 528-553.
- Ueno, M. & Polinsky, M. (2009). Does headedness affect processing? A new look at the VO-OV contrast. *Journal of Linguistics*, 45, 675-710.
- Wickham, H. (2009). *Ggplot2: elegant graphics for data analysis*. New York: Springer-Verlag.
- Yamashita, H. & Chang, F. (2001). «Long before short» preference in the production of a head-final language. *Cognition*, 81, B45-B55.

Aurkibidea / Índice

- 11 Aitzinsolasa
- 13 Prólogo
- 15 Testu-corpusen informazio morfosintaktikoaren etiketatze automatikoa
hizkuntz ezagutzan oinarrituz: zenbait arazo, hainbat erronka
ITZIAR ADURIZ, JOSE MARI ARRIOLA
- 31 Bertsolaritzaren genealogia subalternoak
LUZIA ALBERRO, K. JOSU BIJUESCA
- 47 Euskal hiztun berri gazteak muda-prozesuan: ekintza-ikerketa baten
behinbehineko emaitzak
ESTIBALIZ AMORRORTU, ANE ORTEGA, JONE GOIRIGOLZARRI
- 63 Garaziko euskararen azterketa diafasikoa
ALEXANDER ARTZELUS MUXIKA
- 81 Berridazketak Sarrionandiaren poesian eta Saizarbitoriaren *Egunero hasten
delako* nobelan: hurbilpen genetiko bat
MIKEL AYERBE SUDUPE
- 95 Somorrostro, mendebaldeko euskararen muga
GOIO BAÑALES, MIKEL GORROTXATEGI
- 113 Euskara sasoian? Euskararen sozializazioa Gasteizko
pilota-elkarte batean
IÑIGO BEITIA
- 127 Euskal hiztun natiboak, ez-natiboak eta hitanoa
GARBIÑE BEREZIARTUA ETXEBERRIA, BEÑAT MUGURUZA ASEGINOLAZA
- 141 Lingüística Histórica: estado actual
LYLE RICHARD CAMPBELL
- 163 Lenguas y sociolingüística en el interior del País Vasco en el siglo XIX:
testimonios del Archivo Zavala
BRUNO CAMUS BERGARECHE, SARA GÓMEZ SEIBANE

- 177 Les verbes psychologiques du basque : typologie et diachronie
DENIS CREISSELS, CÉLINE MOUNOLE
- 195 Testu-generoaren irudikapena eta erabilera ahozkoaren
didaktikan
LEIRE DIAZ DE GEREÑU LASAGA, ITZIAR IDIAZABAL GORROTXATEGI, LUIS MARI
LARRINGAN ARANZABAL
- 209 Zentsura-ikasketak gaur egun: aplikazioa euskal literaturan
AMAIA ELIZALDE ESTENAGA
- 223 Azentuazioaren eremu sintaktikoak mugatzen
ARANTZAZU ELORDIETA
- 237 Sintaktikoki etiketatutako euskarazko corpus historikoa
eraikitzen
AINARA ESTARRONA, IZASKUN ETXEBERRIA, RICARDO ETXEPARE, MANUEL
PADILLA-MOYANO, ANDER SORALUZE
- 253 Ahozkotasanaren didaktika ikuspegi dialektikotik abiatuta
AINHOA EZEIZA, JAVIER ENCINA
- 267 Ahozko euskararen erabilera eskolan: gako zenbait irakasleen prestakuntzarako
INES M. GARCIA-AZKOAGA, OLATZ BENGOETXEA, JOSUNE ZABALA
- 283 El corónimo navarro *Salazar / Zaraitzu*: origen y desarrollo de su doble
denominación
ROBERTO GONZÁLEZ DE VIÑASPRE
- 295 *Fontes Linguae Vasconum*: orígenes y documentos para una Historia
del Euskara
JOAQUÍN GORROCHATAGUI
- 315 Euskal literatura itzuliaren historiografia bateraturantz
MIREN IBARLUZEA SANTISTEBAN
- 329 Basque among the world's languages: a typological approach
IVÁN IGARTUA
- 351 Familias vascohablantes: propuesta de definición desde la socialización
lingüística
PAULA KASARES
- 363 Formation linguistique de basque aux enseignants, pour un enseignement
bilingue à parité horaire au Pays Basque Nord
BEÑAT LASCANO
- 375 Eñaut Etxamendiren obra narratiboaren ekarpena euskal poetika erruralari
ITZIAR MADINA
- 391 Erdaretarako literatur itzulpena: zeharkako eta zuzeneko itzulpenaren arteko
muga lausoa
ELIZABETE MANTEROLA AGIRREZABALAGA

- 405 Ahozko euskararen irakaskuntzarako irakasleen prestakuntza: berrikuntza didaktikoa eta soziala?
IBON MANTEROLA
- 421 Enkarterriko PI-(h)aran/(h)uri motako euskal toponimoak
MIKEL MARTÍNEZ ARETA
- 437 Diachronical hypotheses accounting for synchronic variation: the case of the Basque particle *ote*
SERGIO MONFORTE
- 453 Jardueraren azterketa irakasleak prestatzeko bide: debatearen ikas-irakaskuntzaren adibidea
AROA MURCIANO EIZAGUIRRE, ARANTZA OZAETA ELORTZA
- 467 Hausnarketa zenbait euskal literatura-ikerketetz
MARI JOSE OLAZIREGI
- 485 Ahozko euskara *Kolegioko ikastresna* ikasmaterialean
ARGIA OLÇOMENDY
- 501 Euskararen postposizioak
JAVIER ORMAZABAL
- 517 Hitz-ordenaren eragina zenbait ezaugarri gramatikalen erabilera-maiztasunean
LUIS PASTOR
- 533 Differential D-marking on proper names? A cross-linguistic study
IKER SALABERRI
- 547 Externalization and morphosyntactic parameters in Basque
HISAO TOKIZAKI
- 561 XIX. mendeko Debagoieneko testuez zenbait argitasun: egiletasuna eta iturriak
OXEL URIBE-ETXEBARRIA
- 579 Euskarazko perpausik gabeko azpikonparazioak
LAURA VELA-PLO
- 595 Latinaren aurreko osagai indoeuroparra Euskal Herriko toponimian: bukaeran -(iz)amo duten leku-izenak
LUIS MARI ZALDUA

Izenburua/Título:

Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari/Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca

© Argitaratzaileak/Editores:

Ekaitz Santazilia, Dorota Krajewska, Eneko Zuloaga, Borja Ariztimuño

© Egileak/Autores:

Itziar Aduriz, Jose Mari Arriola, Luzia Alberro, K. Josu Bijuesca, Estibaliz Amorrortu, Ane Ortega, Jone Goirigolzarri, Alexander Artzelus Muxika, Mikel Ayerbe Sudupe, Goio Bañales, Mikel Gorrotxategi, Iñigo Beitia, Garbiñe Bereziartua Etxeberria, Beñat Muguruza Aseginolaza, Lyle Richard Campbell, Bruno Camus Bergareche, Sara Gómez Seibane, Denis Creissels, Céline Mounole, Leire Diaz de Gereñu Lasaga, Itziar Idiazabal Gorrotxategi, Luis Mari Larringan Aranzabal, Amaia Elizalde Estenaga, Arantzazu Elordieta, Ainara Estarrona, Izaskun Etxeberria, Ricardo Etxepare, Manuel Padilla-Moyano, Ander Soraluze, Ainhoa Ezeiza, Javier Encina, Ines M. Garcia-Azkoaga, Olatz Bengoetxea, Josune Zabala, Roberto González de Viñaspre, Joaquín Gorrochategui, Miren Ibarluzea Santisteban, Iván Igartua, Paula Kasares, Beñat Lascano, Itziar Madina, Elizabete Manterola Agirrezabalaga, Ibon Manterola, Mikel Martínez Areta, Sergio Monforte, Aroa Murciano Eizaguirre, Arantza Ozaeta Elortza, Mari Jose Olaziregi, Argia Olçomendy, Javier Ormazabal, Luis Pastor, Iker Salaberri, Hisao Tokizaki, Oxel Uribe-Etxebarria, Laura Vela-Plo, Luis Mari Zaldua

© Argitaratzailea/Edita:

Nafarroako Gobernua/Gobierno de Navarra

Kultura eta Kirol Departamentua/Departamento de Cultura y Deporte

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia/Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana

Lanak adituek berrikusi dituzte, itsu bikoitzeko sistemaren bidez/Los trabajos han sido revisados por pares doble ciego.

Diseinua eta maketazioa/Diseño y maquetación:

Kö estudio

Imprimaketa/Impresión:

Linegrafic

ISBN: 978-84-235-3561-3

LG/DL: NA 1438-2020

Sustapena eta banaketa/Promoción y distribución:

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtsa/Fondo de Publicaciones del Gobierno de Navarra

Navas de Tolosa, 21

31002 Iruña/Pamplona

Tel.: 848 427 121

fondo.publicaciones@navarra.es

<https://publicaciones.navarra.es>

Fontes Linguae Vasconum 50 urte.

2019an 50 urte egin zituen Nafarroako Gobernuaren Vianako Printzea Erakundeak argitaratzen duen *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta* euskal hizkuntzalaritzako aldizkariak.

Horren gorazarre, liburu honek gaur egungo euskal hizkuntzalaritza- eta literatura-ikerketan zertan den erakutsi nahi du. Eskarmentu handiko ikertzaileek eta belaunaldi berriek bat egin dute argitalpen honetan, besteak beste, dialektologia, hizkuntzaren didaktika, filologia, gramatika teorikoa, hizkuntz tipologia, hizkuntzalaritza historikoa, itzulpengintza, literatura, onomastika eta soziolinguistika hizpide dituztela.

La revista de lingüística vasca *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta*, publicada por la Institución Príncipe de Viana del Gobierno de Navarra, cumplió 50 años en 2019.

En homenaje de la efemérides, este libro pretende dar cuenta del estado actual de la investigación en lingüística y literatura vascas. Investigadores de gran trayectoria y nuevas generaciones se reúnen en esta publicación para tratar, entre otros temas, sobre dialectología, didáctica de la lengua, filología, gramática teórica, tipología lingüística, lingüística histórica, traducción, literatura, onomástica y sociolingüística.

ISBN: 978-84-235-3561-3



9 788423 535613